

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko maiatzaren 28tik ekainaren 4rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/05/29

- **BARNE MINISTERIOA. - Mugak.** - INT/519/2021 Agindua, maiatzaren 27koa, zeinaren bidez luzatzen den INT/657/2020 Agindua, uztailaren 17koa, zeinak irizpideak aldatzen dituen nahitaezkoak ez diren bidaiak aldi batez murrizteko hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen akordioko beste herrialdeetara, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondoriozko ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiengatik. [8972 xedapena - 1 or.](#)
- **GARRAIOEN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. - Osasun neurriak. Itsas nabigazioa.** - Ebazpena, 2021eko maiatzaren 27koa, Itsas Merkataritzaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez osasun neurriak ezartzen diren gurutzaontzi erako bidaia-ontzientzat, eta indarrak gabe uzten duen 2020ko ekainaren 23ko Ebazpena, neurri murriztaileak ezartzen dituen gurutzaontzi erako bidaia-ontzientzat, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko. [8973 xedapena - 3 or.](#)

2021/05/31

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. - Administrazio prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** - Ebazpena, 2021eko maiatzaren 26koa, Justizia Zerbitzu Publikoaren Berrikuntza eta Kalitaterako Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez gaitzen den CI@veJusticia eta ezartzen diren haren erabilera-baldintzak, interesdunak identifikatzeko eta sinatzeko mekanismo gisa, organo judizialekin eta Justizia Administrazioiko gainerako organoekin telematikoki egindako jarduketetan. [9004 xedapena - 8 or.](#)
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. - Administrazio prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** - Ebazpena, 2021eko maiatzaren 25koa, Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez gaitzen den izapideak eta jarduketak telefonoz eta telematikoki egitea zenbait identifikazio-sistema erabilia, eta zeinaren bidez arautzen diren formulario elektronikoen bidez eskaerak aurkeztearekin zerikusia duten zenbait alderdi. [9005 xedapena - 5 or.](#)

2021/06/02

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Antolakuntza.** - 389/2021 Errege Dekretua, ekainaren 1ekoa, Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren Estatutua onesten duena. [9175 xedapena - 26 or.](#)

- **Eraikinak. Efizientzia energetikoa.** - 390/2021 Errege Dekretua, ekainaren 1koa, eraikinen efizientzia energetikoa egiaztatzeko oinarrizko prozedura onesten duena. [9176 xedapena - 23 or.](#)

2021/06/03

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Desgaitasuna duten pertsonak.** - 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen duena. [9233 xedapena - 68 or.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.- Kutsadura akustikoa.** - PCM/542/2021 Agindua, maiatzaren 31koa, zeinaren bidez aldatzen den Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuaren III. eranskina, ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez. [9234 xedapena - 6 or.](#)
- **Batxilergoa. – Ebazpena, 2021eko maiatzaren 31koa, Idazkariordetzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2021eko maiatzaren 24ko Ebazpena, Hezkuntzako Estatu Idazkaritza eta Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiarena, 2020-2021 ikasturtean Unibertsitatara sartzeko Batxilergoaren ebaluazioan egokitzapen berriak ezartzen dituen, Estatuko lurraldetik kanpo dauden Espainiako ikastetxeen, kanpoko hezkuntza-programen, nazioarteko programen, atzerriko hezkuntza-sistemetatik datozen ikasleen eta urrutiko irakaskuntzen behar eta egoeretara egokitzeko, COVID-19aren ondoriozko pandemiak eragindako osasun egoeraren ondorioz ezarritako neurrietara eta haien herrialdeetako agintariek hari eusteko hartu dituzten neurrietara.** [9235 xedapena - 3 or.](#)

2021/06/04

- **Ezohiko neurriak.** - PCM/545/2021 Agindua, ekainaren 2koa, Ministroen Kontseiluaren 2021eko ekainaren 1eko Erabakia argitaratzen duena, zeinak luzatu egiten baitu Ministroen Kontseiluaren 2021eko otsailaren 2ko Erabakia, COVID-19aren hedapena eta kutsatzea mugatzeko ezohiko neurriak ezartzen dituen, Brasilgo Errepublika Federalaren eta Hegoafrikako Errepublikaren eta Espainiako aireportuen arteko hegaldiak mugatuz. [xedapena 9281 - 3 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/06/01

- **LEHENDAKARITZA.** - 26/2021 DEKRETUA, maiatzaren 31koa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita honako dekretu hau: maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa. [3124 xedapena - 2 or.](#)

2021/06/03

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA.** - AGINDUA, 2021eko maiatzaren 12koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko eremu kalteberetarako Jarduketa Programa, nekazaritzako nitratoekin ura kutsatzeko arriskuari dagokionez. [3185 xedapena - 12 or.](#)

2021/06/04

- **XEDAPEN OROKORRAK. - OSASUN SAILA.** - 145/2021 DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa, Eutanasiaren arloko Euskadiko Berme eta Ebaluazio Batzordea sortzen duena. [3211 xedapena - 2 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/05/31

- **Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila.** - Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 4507/2021 FORU AGINDUA, maiatzaren 20koa, , foru erakunde publikoak eta haiei lotutako edo haien mendeko entitateak Bizkaiko Foru Aldundiaren dokumentuen erregistro elektroniko orokorrari atxikitzeko protokoloa onartzen dueña. [I-441 xedapena - 5 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/06/01

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 281/2021 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, zeinaren bidez onesten baitira 234 eredu, 235 eredu, eta 236 eredu, baita hiru ereduak aurkezteko epeak eta moduak ere. [2103631 xedapena - 16 or.](#)
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 289/2021 Foru agindua, maiatzaren 25ekoa, aitortu beharra dakarten planifikazio fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoetan esku hartzen eta parte hartzen dutenen arteko komunikazio ereduak onesten dituen. [2103638 xedapena - 9 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/06/02

- **ERREGELAMENDUAK.** – Batzordearen 2021/880 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2021eko martxoaren 5koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/686 (EB) Erregelamendua aldatzen duena. Horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/429 (EB) Erregelamendua osatzen da, gatibu dauden animalia jakin batzuen ugalketarako produktuak Batasunaren barruan lekualdatzeko aplikatu beharreko baldintza zoosanitarioei, trazabilitatekoei eta ziurtapenekoei dagokienez. [194/1 xedapena - 9 or.](#)
- **ERREGELAMENDUAK.** – Batzordearen 2021/881 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2021eko martxoaren 23koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/689 (EB) Erregelamendua aldatzen duena, zerrendako gaixotasun jakin batzuei eta

sortzen ari diren gaixotasunei dagokienez, zaintza-arauei, errotik kentzeko programei eta gaixotasunik gabeko estatusari dagokienez. [L 194/10 xedapena - 6 or.](#)

2021/06/03

- Akats-zuzenketa, honako zuzentarau honena: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/944 (EB) Zuzentaraua, 2019ko ekainaren 5koa, elektrizitatearen barne merkatuaren arau komunei buruzkoa eta 2012/27/EB Zuzentaraua aldatzen duena (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 158, 2019ko ekainaren 14koa). [L 195/9 xedapena - 1 or.](#)

2021/06/04

- **GOMENDIOAK.** – Kontseiluaren 2021/892 (EB) Gomendioa, 2021eko ekainaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen den Kontseiluaren 2020/912 (EB) Erregelamendua, EBra funtsezkoak ez diren bidaiak aldi baterako mugatzen dituen eta mugatze horren balizko kentzeari buruzkoa. [L 198/1 xedapena - 4 or.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO